



[Eusk/Cast] La red Independentistak llama a celebrar el Aberri Eguna en Iruñea

INDEPENDENTISTAK SAREA :: 05/02/2016

La red Independentistak llama a celebrar el Aberri Eguna en Iruñea el día 27 de marzo

[Euskara]

Aberri Eguna Iruñean ospatzeko deia egiten du Independentistak sareak

Aldi berean, euskal komunitateak munduan presentzia duen toki guztietan ospatzea bultzatuko du

Martxoaren 27an Aberri Eguna Iruñean ospatzeko deia egiten die Independentistak sareak euskal herritarrei. Ohikoa den moduan, aldarrikapena eta ospakizuna uztartuz, egun osoko egitaraua izango da: eguerdian martxa edo manifestazioa eta ekitaldi politikoa eta, ondoren, ospakizunak segida izango du gauera arte Iruñeko kaleetan zehar eta jendeak jai giroan egun eder bat igarotzeko aukera izango du.

Aberri Egun zabal eta parte-hartzailea antolatzea da Sarearen asmoa eta, sigla eta familia politikoetatik haratago, independentista guztiok aniztasunean elkaturik ospatzeko deia egiten du.

Euskal Herri mailan Iruñerako deialdia egiten da, baina, horrez gain, mundu zabalean zehar zabalduta dagoen euskal komunitatean gora doa, urtetik urtera, Aberri Eguna ospatzen den tokien kopurua. Independentistak sareak dinamika hori bultzatuko du munduko herrialde desberdinetako sarekideen bitartez.

Sarea antolaketa lanetan sartuta dago jadanik eta martxoaren 27ko erronkari elkarlanean aurre egiteko deia luzatzen die independentista guztiei. Urtero bezala, sarekideen eta herritar ugariaren laguntzari esker lortuko da garai politiko hauek eskatzen duten Aberri Egun jendetsu eta esanguratsua.

[Castellano]

A su vez, impulsará su celebración en todos aquellos lugares del mundo donde tenga presencia la comunidad vasca

La red Independentistak llama a celebrar el Aberri Eguna en Iruñea el día 27 de marzo. Como es habitual, se pretende organizar una programación de todo el día, uniendo la reivindicación con la celebración. Al mediodía tendrán lugar la manifestación y el acto político, tras lo cual, se dará paso al ambiente festivo en las calles de Iruñea con la intención

de ofrecer a todo el mundo la oportunidad de disfrutar un gran día.

La Red quiere organizar un Aberri Eguna abierto y participativo y llama a todas y todos los independentistas a celebrarlo unidos en la diversidad por encima de siglas y familias políticas. En las próximas semanas hará pública una reflexión política más amplia en torno al Aberri Eguna 2016 y presentará la programación del día y demás concreciones.

La celebración del Aberri Eguna va más allá de la propia Euskal Herria pues, de año a año, crece el número de celebraciones a lo largo y ancho del mundo en los lugares donde se extiende la comunidad vasca. Independentistak impulsará esta dinámica mediante las y los sarekides de los diferentes países.

La Red está metida de lleno en los trabajos de organización del evento y llama a todas y todos los independentistas a responder de manera colectiva al reto del 27 de marzo. Como todos los años, gracias al apoyo y el trabajo de las y los sarekides y muchas personas colaboradoras se logrará un Aberri Eguna tan multitudinario y significativo como exige la situación política.

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-la-red-independentistak>